

Parean dugun krisiak erakutsi digu mila aurpegi dituela, alde guztietatik kolapsatzen ari den sistema baten aurrean gaudela eta horregatik, bazterreko subjektuen ordainetan bere burua behin eta berriro berreraikitzen eta berrindartzen duen sistema dela aurrean daukaguna. Neoliberalismoaren oldarraldi berri batean gaude, heteropatriarkatuak berriz kokatu du bere burua sistema honen pieza ezinbesteko gisa eta kolonialismoak aurreko biak posible egiten jarraitzen du. Elkar elikatzen duten eta elkar eusten duten sistemak dira aurrean dauzkagunak, eta beraz, toki guztietatik egin behar diegu aurre. Horregatik gaude hemen neska* gazteok, kaleak berriz hartzeko, borrokaz bizi duguna eraldatzeko.

Kontsumora eta maitasun erromantikoaren ideologiara kondenaturik eraiki diren harreman horiekin hautsi nahi dugu, ez dugu biolentziaz elikatzen diren harremanen parte izan nahi eta horiekin bukatzeko hautua egiten dugu. Guk bizitza bizigarriak nahi ditugu, bizi proiektu duinak eta horretarako kolektiboa, erantzunkizun afektiboa eta elkarren arteko zaintza oinarritzko pieza direla ondo dakigu.

Ez dugu ispilura begira bizi nahi, gorputz hegemonikoaren kanonarekin hautsi nahi dugu. Gorputz argal bat ez delako zaindutako gorputz bat. Saltzen diguten edertasunak gure osasunean dituen kalteak ondo ezagutzen ditugulako eta horien aurrean guk gure gorputzak eta gure buruak babesteko ditugulako. Osasuna edertasunaren gainetik jarri nahi dugulako. Lodiak, iletsuak, kaxka motzak, argalegiak, baxuak edo altuegiak garelako. Gure gorputzak zuen kanonarekiko desobedienteak direlako eta hala izaten jarraituko dugulako.

Baina, nahiz eta borrokarako, antolakuntzarako eta eraldaketarako apustu argia egiten dugun, ez gara kalte gabe ateratzen gure egunerokotasunetik. Gazteon, eta batez ere, neska* gazteon buru osasuna benetako arriskuan dago, antsietatea, depresioa, elikadura-nahasmenduak, gure egunerokotasunean dauden gaixotasunak dira, gure lagunek daukate, guk daukagu eta ez ditugu baliabide nahikoak hemendik ateratzeko. Hau da zuen konponbidea: bide pribatua hartu eta kolektiboa den arazo hau maila indibidualera mugatzea eta ahal duenak konpon dezala. Guk argi dugu sistema hau dela erantzulea, heteropatriarkatu kapitalistaren ondorio dela gure egoera eta antolaketa kolektiboaren bidez lortuko dugula hemendik ateratzea.

Neska* gazteok pairatzen ditugun baldintza penagarriak/nekagarriak ez dira kasualitatez ematen, hauek erantzule zehatzak dituzte. Badakigulako gizon-zkoek zaintzaren alorrean erantzunkizunik hartu gabe jarraitzen dutela, guk urteetan zehar errepikatu arren ez dute ardurarik hartu nahi, honen pisu guztia guregan jausten delarik. Era berean, gure bizitzak prekarizatzen dituen kapitalaren aurrean instituzioek entzungor egiteaz ez ezik, erreprezioarekin erantzuten dutela ikusi dugu behin eta berriro. Babes soziala ez da poliziarekin lortuko, hau benetan sostengatuko gaituen sareen bitartez emango da.

Bizigarria den bizitza nahi dugu eta badakigu sistema honetan ezinezkoa dela, badakigu sistema heteropatriarkatu kapitalistan ezin dela bizitza erdigunean jarri. Hori dela eta, galbidera eramaten gaituen sistema gelditu beharra dugu! Eta hori da gaurkoan adierazi nahi duguna: neska* gazteok sistema frenetikoa hau gelditu, blokeatu, kolapsatu, moztera... goaz! Soilik horrela lortuko dugu bizitzak erdigunean jartzea, errotiko aldaketak burutuz eta egungo sistemarekin amaituz

Horretarako dei egiten diegu herri eta auzo guztietako neska* gazteei, antolatu daitezen, kaleak har ditzaten, bizitzak erdigunean jarriko dituzten alternatibak eraikitzeari ekin eta bizitzen uzten ez digun sistemari autodefentsa feministaz erantzuteko.

Egoera hau jasan ezina da. Neska* gazteok borrokan gaude!
Gora borroka feminista!